

# Goierri

Langileen krisia

## LANGABEZIAREN MAMUA ATE JOKA



DR. JOSE  
GISASOLA

3998 Elkargokidea

OSTEOPATIAN MEDIKUA



Andramari, 13 Ezk. Solairu-arte / 20200 Beasain / T 629 45 20 53

BIZKARREKO MINAREN TRATAMENDU NATURALA

Lunbalgia, Hernia Diskala, Ziatika, Migraina, Zefalea, Bertigoa, Artrosia, Buruhezur-aurpegiko mina, ATM



# berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.  
Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.  
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.  
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa  
Tel.: 943 653 307  
Tel. / Fax: 943 650 520  
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa  
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977  
Fax: 943 675 421  
E-mail: berogas@berogas.com

[www.berogas.com](http://www.berogas.com)



*Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:*


*I. Fdez Or naburu Dra.  
(Medikuntza estetikoan masterra)  
A. Ramirez Baigorri Dra.*

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

**NOBEDA**

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04



# GoierriHartxo

Goierriko haurren aldizkaria  
14. zenbakia zure esku



Olinpiadak  
ekintzailtza lantzeko

## Goierritarra

### HAMABOSTEKARIA

#### Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L:

Urbialde plaza, 7 - behea

BEASAIN

#### Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

#### Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

**Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.**

### Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

## AURKIBIDEA

**4. Iritzia:** Dionisio Amundarain.

**5. Ingurugiro txokoa:** Elikagai ekologikoak kontsumitzeko 11 arrazoi

**6. Euskara txukuntzen:** Denetik (XVI)

**8. Erreportajea:** ELA eta LAB sindikatuak krisiaz.

**16. Gazteleku:** Maialen Bosque errugbilaria.

**18. Goierritar berriak:** Sekou Diarra maliarra.

**22. Non zer.**

**26. Argazki zaharra.**



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Dionisio Amundarain

# Herrigintza

**T**ermino bikaina tituluko hori, esanahitsua, gardena, argia. Aberatsa. Ez du azalpen beharrik. Nornahik du ulertzen.

Eduki-alde asko ditu bere baitan. Biziri lotua izaki. Eta bizia bezala, askotariko herrigintza ere.

«Bizia» kontzeptuak bezalaxe, hainbat geruza ditu herrigintzak, hainbat xafla, hainbat alde bata bestearen gainean nahiz aldamenean. Ez dut asmorik xafla guztiak aipatzeko. Askoz gutxiago ere.

## Herrigintzan parte hartze handia

Gauza zoragarria da ikustea arazo larri bat sortzean, jendea manifestaziora joateko prest ikustea.

Gauza zoragarria euskararen aldeko urteroko manifestaziora jendea erruz eta ugari joaten ikustea.

Gauza zoragarria hauteskundeetan botoa erantzukizunez ematera jendea samaldan joaten ikustea.

Gauza zoragarria presoen familiartekoen eta adiskideen joan-etorrietarako, auzipetuen gastuetarako, presoen beren laguntzarako hainbeste diru eta laguntza eskaintzen ikustea.

Gauza zoragarria haurren, gaztetxoaren eta gazteen denbora-pasarako hainbat boluntario prest ikustea.

Gauza zoragarria adin handikoei lagun egiteko hainbat jende prest ikustea.

Gauza zoragarria hainbat guraso bereen formaziorako hainbat baliabide eskaintzeko prest agertzea, berek gerrikoa estutu behar izango badute ere.

Gauza zoragarria...

## Herrigintzan parte hartze handiagobaten ametsa

Nork ez du egiten amets? Nork ez du bizi utopiarik? Herrigintzari gagozkiola ere

zenbat amets, zenbat utopia! Batzuk zoroagoak, beste batzuk lurrari josiagoak.

Nago: gauza zoragarria izango litzatekeela eskualdeka nahiz udalerrika nahiz auzokoa, isilka, beste inork zertan ikusi beharrik izan gabe, taldetxoak bilduko balira, herrigintzak bere baitan dituen hainbat xaflatako, hainbat geruzatako, hainbat aldetako bati estu lortzeko, hertsiko aztertzeko, modu lasai eta irekian ikertzeko; pauso hauek egiteko: ikusi, aztertu, hausnartu, ekintza planteatzeko.

Beste jira bat emango genioke herrigintzari. Ez ginatke egongo, adibidez, botoa nori eman amak edo aitak esan zain. Ez ginatke egongo, adibidez, hirigintzaz udaletxean zer erabakiko zain. Ez ginatke egongo, adibidez, haurrei eta gaztetxoei eskolan zein euskal eredu ezarriko zain. Ez ginatke...

Ez ginatke bestek zer egingo zain. Bestek zer erabaki behar duten ikusten, aztertzen, hausnartzen, konklusioa izapidetzen saiatuko ginatke.

Ez ote gara ari pentsatzen eta jasaten, gure gizartean gertatzen ari diren hainbat fenomeno guztiz berezkoak direla, ezinbestean horrela izan beharrekoak direla, nahitaezkoak direla? Batzuetan ematen du, ezen hain libreak omen garenok, hain burujabe omen garenok... fatalismoaren morroi eta neskame izateaz harro garelara.

Nola ulertu, bestela –eta adibide bat da soilik–, gure artean euskara erabiltzearekin gertatzen dena:

- bi lagun, biak euskaldunak (euskaradutenak, alegia) eta noiznahi eta beti beren artean gaztelaniaz jardutea?;
- familia bat, denak euskaldunak, denak «abertzaleak» eta noiznahi beren artean gaztelaniaz jardutea?;
- kirol-taldea, kirolari guztiak euskaldunak, arduradunak euskaldunak, eta arduradunek noiznahi erdarara jotzea?

Euskaraz aritzearen edo ez aritzearen kontuan bakarrik ez, baizik herrigintzako beste hainbat geruzatan, beste hainbat xaflatan, beste hainbat aldetan, zer ari da gertatzen?; zer ikusten dugu?; zer azterketa egin izan dugu? zer hausnartze egin izan dugu? Zer pauso egin izan dugu fenomeno trakets hori / horiek itzulikatze-ko?

Jaurlaritzatik egin dezaten zain egon? Ai, zer zorakeria! Historian noiz gertatu izan da goitik beherako itzulikatzerik?

Horretan bagaude, jai dugu. Horra **herrigintzak** aurrean jartzen digun erronka. *Ikusi, aztertu, hausnartu, ekin. ekin eta ekin.*

*Batzuetan ematen du,  
ezen hain libreak omen garenok,  
hain burujabe omen garenok...  
fatalismoaren morroi eta neskame  
izateaz harro garelara.*

# Elikagai ekologikoak kontsumitzeko hamaika arrazoi

Nekazaritza ekologikoak hiru oinarri dauzka: ongari naturala, bere egiturari kalte egin gabe lurra lantzea eta labore elkartua eta txanda-kakoa.

Nekazaritza ekologikoak, ohiko nekazaritzak ez bezala, ez du erabiltzen ez ongari kimikorik, ez pestizidarik, ez fitohormonarik, ez gainerako sintesi-produktu kimikorik. Honela, ziklo biologiko naturalari eusten dio eta ez dio ingurugiroari kalterik egiten.

Elikagai ekologikoak kontsumitzeko hamaika arrazoi:

## 1. Gure baserriarren jarraipena ziurtatzea

Nekazal ustiapen txikia indartzen du eta nekazal lanpostuak sortzea errazten du.

## 2. Lurraren higadura murriztea

Lur bizia, era naturalez ongarrtua, baserri ekologikoen elika-kateko ardatza da. Baserri konbentzionaletan, lurra leheneratzeko duen ahalmen naturala baino zazpi aldiz bizkorrago higatzen da.

## 3. Uraren kalitatea babestea

Granja konbentzionaletan erabiltako pestizidek kutsatu egin dituzte biztanleria erdia baino gehiagok duen edateko uraren iturriak.

## 4. Energia murriztea

Gaur egun energia gehiago erabiltzen da ongari sintetikoen produkzioan, goldatu, erein eta uzta biltzen baino. Nekazaritza ekologikoak energia handia aurrezten du egiten duen erabilera egoikiari esker.

## 5. Kimikarik gabe jatea

Pestizidak organismo biziak hiltzeko asmoz egindako pozoiak dira eta horregatik gizakiontzat ere kaltegarriak izan daitezke.

## 6. Nekazariaren osasuna zaintzea

Herbizidekin lan egiten duten nekazariak gainerako langileek baino 6 aldiz errazago har dezakete minbizia. Urtean, milioi bat nekazari pozoitzen dira herbizidekin munduan.

## 7. Nekazal garapenerako tresna

Nekazaritza ekologikoak

nekazari-lanpostuak sortu eta mantentzen ditu, eta nekazal jarduerari lehentasuna ematen dio garapen-prozesuan.

## 8. Biodibertsitatea erraztea

Monolaborantza nekazaritza tradizionalaren era estandarra da, plagiziden erabilera hamar aldiz handitu bada ere, uztak bikoiztu baino ez dira egin. Nekazaritza ekologikoak ordea, bere praktika tradizionalekin, biodibertsitatea errazten du.

## 9. Tokian tokiko merkatuak bultzatzea

Baserritarrari zuzenean erosiz gero, nekazaritza ekologikoren produktuak ez dira garestiago egiten eta balio erantsi guztia baserriaren eskuetan uzten dugu. Honela, ekoizlea-kontsumitzailea harremana hobetzen da.

## 10. Zapora hobez gozatzea

Baserri ekologikoetan lurzorua bizirik eta osasuntsu egonda, landareak hobeto daude eta haiek jatean gure zaporea ere bai.

## 11. Etorkizuneko belaunaldiak zaintzea

Guk ez dugu lurzorua gure gurasoengandik oinordetzan hartu, maileguan daukagu gure seme-alabentzat baizik.

Bizigai elkarteak.  
<http://www.geocities.com/bizigai/ekologikoa.htm>

## JAKIN BEHARREKOAK

**Charles Darwin** jaio zela 200 urte beteko dira aurten eta bere liburu ezagunetarikoa argitaratu zela 150 urte, 'Espeziaren jatorria'. Bere garaian iraultzailea izan zen.

**2009 Astronomiaren Nazioarteko Urtea** 1609. urtean Galileo Galileik teleskopioa hartu eta zerura begira jarri zen.

**'The Transition Movement'**. 150 urte daramakigu petroleoa erabiltzen energi iturri eta hainbat materialen oinarri bezala, berekiko menpetasun handia dugu gaur egun mundu osoan. Mugimendu honek partaidetza bultzatuz, bertakotasuna berpiztuz aurre egiten dio. Kreatibitatea eta ikuspegi positiborekin petroleoaren urritasunari erantzun kolektiboa emateko mugimendu. Ezkertasunagatik urrunduz petroleo gutxiago behar duen herria bizileku atsegina eta eroso izan daitezkelako. Rob Hopkins permakultorea ideia honen bultzatzailea da. Erresuma Batuan hasi den mugimendua munduan zehar zabalitzen ari da.

## LIBURUA

**"El parque de las hamacas"** Vicent Boix. Ed Icaria benetazko gertakariaren inguruan eginiko saiakera: produktu kimiko toxiko bat erabili zen nekazaritzan eta ondorioz milaka gaixo egon ziren. 15 herrialdeetan erabili zen, Espainia barne. Informazio gehiago [www.elparquedelashamacas.org](http://www.elparquedelashamacas.org)

*Nekazaritza ekologikoak ziklo biologiko naturalari eusten dio eta ez dio ingurugiroari kalterik egiten.*

# Denetik (XVI)

Maizpide  
euskaltegia

## Guzti hau / hau guztia

Erne, lagunok, gaur Goierriko kaleetan arraro samarra den erabilera bati buruz hitz egingo dugu eta! Entzun edo irakurri al duzue inoiz horrelakorik?

- ✘ **Hori guztia** interesgarri askoa da!
- ✘ **Horrek guztiak** ba al du zerikusirik lehen esandakoarekin?
- ✘ **Horri guztiari** eragingo al dio aurrerantzean?
- ✘ **Horren guztiaren** erantzulea Patxi da.
- ✘ **Horiek guztiak** gorriak ikusiko dituzte!
- ✘ **Horientzat guztientzat....** kaka zabarra!

Guztiak dira zuzenak. Kontua da orain arte bestelako forma batzuk erabiltzen aritu garela, **euskara batuan** gaur egun onartuak ez direnak:

- ✘ **Guzti hori** interesgarri askoa da!
- ✘ **Guzti horrek** ba al du zerikusirik lehen esandakoarekin?
- ✘ **Guzti horri** eragingo al dio aurrerantzean?
- ✘ **Guzti horren** erantzulea Patxi da.
- ✘ **Guzti horiek** gorriak ikusiko dituzte!
- ✘ **Guzti horientzat....** kaka zabarra!

Aurrerantzean, beraz, ahalegindu gaitezen lehenengo multzokoak erabiltzen!

## Zuen guztiontzat / zuontzat guztiontzat

Aurrekoaren bidetik, hemen ere bigarrena da txukuna euskara batuan, “zuontzat guztiontzat” alegia.

- ✘ **Eta zuen guztiontzat afari ederra Pelloren elkartean** (oker)
- ✓ **Eta zuontzat guztiontzat afari ederra Pelloren elkartean** (zuzen)

## Beti “zuzendu” ?

Erne, euskaraz behar baino gehiagotan erabiltzen dugu aditz hau eta!

- ✘ **Zuzendariari zuzendutako aurrekontua mabai gainean dago** (oker)
- ✓ **Zuzendariari **bidalitako** aurrekontua mabai gainean dago** (zuzen)
- ✘ **Aratzi zuzendutako SMSa eskuko telefonoan gorde dut** (oker)
- ✓ **Aratzenzako SMSa / Aratzi **bidalitako** SMSa eskuko telefonoan gorde dut** (zuzen)

Ez duk ulertzen, Juanjo! Horrek guztiak ez dik une honetan ezertarako balio. Alfonsoren eta Rosiren bedeinkapena diat...

Hi, Patxi, Lehendakaritza gurea izan duk 30 urtez eta aurrerantzean ere halaxe izango duk! Bidali iezaioke telegrama Zapaterori hori garbi utziz!



Zein izango ote da EAEko hurrengo lehendakaria?

## Zuzendu, behar izanez gero...

1. Gurasoei zuzendutako ikastaro horrek “Haurrak eta zigorra” du izenburua.
2. Guzti honek mesede galanta egingo die haurrekin etsita dabilzan gurasoei.
3. Patxi Lopezek eskutitza zuzendu zion Ibarretxeri. Bertan zera zioen, euskaldun guztion lehendakari izan nahi zuela.
4. Azterketak zuzentzen bukatzen dudanean, hitz egingo diagu!
5. ...zuontzat guztiontzat bekatuak barkatzeko isuriko dena!

**OHARRA:** lehenengoan, **Gurasoentzako ikastaro horrek...** behar du; bigarrenean, **Honek guztiak mesede galanta...**; hirugarrenengoan, **Patxi Lopezek eskutitza bidali zion Ibarretxeri**; laugarrena eta bosgarrena zuzenak dira.



# kutxa

# SAGARDOA TXOTXETIK GOIERRIN



## BEGIRISTAIN

TOLARE-SAGARDOTEGIA

Haragia eta ogia jartzen ditugu  
Egunero zabalik 8etatik 11etara

Igandeetan itxita

Eguerdietan ostegunetik  
larunbatera bakarrik

☎ 943 65 28 37

**IKAZTEGIETA**

## OTATZA

TOLARE SAGARDOTEGIA

Aste guztian zabalik, astelehena ezik  
Larunbat eta igandeetan eguerdiz ere ire-  
kita (astean zehar eguerditan enkarguz)

☎ 943 80 17 57

**ZERAIN**

## aulia



TOLARE  
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66

**LEGORRETA**

## Olagi Sagardotegia Jatetxea

Urte guztian  
zabalik

Eguneroko menua

Karta

Sagardotegiko  
meua



☎ 943 88 77 26

**ALTZAGA**

## AMEBI



Sagardotegia

☎ 943 16 25 23

Zubierreka, 9 **LAZKAO**

## ZALBIDE

TOLARE  
SAGARDOTEGIA



Astegunetan 19:00etatik aurrera  
Asteburuetan eguerdi eta iluntzean

☎ 943 65 21 76

**ABALTZISKETA**

## TXIMISTA

sagardotegia

Egunero zabalik, eguerdi eta gauean

Gudarien Etorbidea

☎ 943 88 11 28

**ORDIZIA**

## URBITARTE

TOLARE SAGARDOTEGIA

Egunero  
zabalik



Zatoz lagunarteko  
giroz gozatzera!

☎ 943 18 01 19

**ATAUN**



## ETXE-ZYRI

SAGARDOTEGIA - JATETXEA

☎ 943 88 20 49

**OLABERRIA**



*ELA eta LAB sindikatuak*

## “Langile ebentualak kaleratzen ari dira ia enpresa guztietan”

**L**angabeziaren datua egunetik egunera handiagoa da. Azkeneko urtebetean, Beasaingo INEMen bulegoan, 700 langile gehiago daude izena eman da. Eskualdeko bi sindikatu nagusienen, ELA eta LABen, bulegora joan gara, langileen egoeraren berri eta krisiak langile-

engan duten eraginaz jakin nahian. Bi sindikatuak ados daude, krisian dagoena, sistema kapitalista dela eta sistemaren beraren aldaketa aldarrikatzen dute. Iker Alustiza (ELA) eta Jose Mari Mujika eta Igortz Badiola (LAB) izan ditugu mintzalgunak.

**over** Urraki  
*Bidaietan adituak*

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**  
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79  
urraki@over.es www.over.es

**ALDANONDO GARAJEA**  
MICHELIN zerbitzu ofiziala

- Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak**
- Filtroak, olioak, engrasea**
- Frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak**
- Harezko txorrotadak**



**Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57**



## Langabezia

**LAB:** 2008ko urtarrilean, Besaingo bulegoan, 1.069 langabetu zeuden izena emanda, eta 2009ko otsailean 1.711. Hau da, urtebetean 700 pertsona gehiago, gehientsuenak gainera, irailetik aurrera. Ehunka lanpostu galtzen ari dira, prekariedade kontratuan zegoen jendea delako. Gehiena sufritzen ari direnak, atzerritarrak, emakumeak eta gazteak dira.

Langabezia ez da hainbeste handitu, hainbat enpresetan dauden espedienteengatik. Nafarroan zuzenean ari dira langileak kaleratzen. Koxkaren kasua hor dago. Beraz, jendearen erreakzioa askoz ere gogorragoa izan da. Hemen gertatzen ari dena da, eta hori ADEGIren aholkua, prestaketa ezberdinak egiten ari direla: EREeen aurretik beste neurri batzuk hartzea. Adibidez, lehenik eta behin prekariedade dauten pertsonak kanporatzea. Hori ia enpresa guztietan gertatu da. Hor ez da erreakziorik ematen, eragindako pertsonak indibidualak dira, ez daukate babes kolektibo bat.

Sindikatuok autokritika egin beharrean gaude, garai honetan ez garelako gai izan, nolabaiteko, prekariedade bizi duten jendearen baldintzak estuago lotzeko. Hainbat eta hainbat tokitan horrelako borroka batzuk planteatzen dituzu, baina jendea hain ondo bizi izan denez, ez ziola baloririk ematen, momentu jakin batean, borrokaldian sartzea. Indarren lortu da. Ez gara gai izan, jendea aktibatuzko. Egoera okertu denean, jende horrek plost egin du.

**ELA:** Enplegu finkoa, oraingo, ez da galtzen ari. Baina jendea langabezian gelditzen ari da, batez ere azpikontratak eta ebentualak. Azpikontraten artean larriena, asko autonomoak izaten direla eta ez daukatela langabezia prestaziorik kasu askotan.

Aipagarria da, behin-behinekotasun tasa %30ean zegoela. Behin-behineko langileak izan dira langabeziara joan direnak. Hego Euskal Herri mailan, 2008. urtean, 40.000 langile gelditu dira langabezian eta horietatik 36.000 behin-behinekoak izan dira. Krisiaren lehenengo pauso hauetan, behin-behinekoak izan dira kaltetuak.

Europar lanpostu finko gehiago dago. Hemengo %30eko behin-behinekotasun tasa, Europar astakeria bat da. Europar, bataz-bestekoa, %6 edo 7 izan daiteke, asko jota.

## Katea

**LAB:** Eraikuntzatik hasi, automozioa... aurreikuspenetan huts egin da. Kate bat da eta jende guztia dago kate honetan sartuta. Lehenengo eragin zuzena langileek jasango dute, baina garbi ikusten ari dena da, sektore guztiak daudela harrapatuta. Gero eta areago joango da: eskualde guztietan eta leku guztietan. Hori da garbi ikusten ari den gauza bat.

Mezu aldetik nahasketa handia egon da. EAeko politikoak ere pausoa aldatuta harrapatu dituzte. Denek esaten duzuten, Confebask, Adegik ere bai, krisiak eragina eraikuntzan izango zuela, hori da Estatuarekin konparaketa egiten zutelako eta Euskal Herria salbu ez, baina eragin askoz ere gutxiago izango zuela. Denbora pasa ahala, irailetik hona ikusi da eraikuntza eta eraikuntzarekin lotuta egon daitezkeen enpresak eragina daukatela, baina horrek dakar, beste enpresa mota batzuk ere sartuta daudela kate berdinean. Automozioaren inguruan dauden enpresa batzuk ere bai, baina pixkanaka-pixkanaka konturatzen ari garena da, arlo eta enpresa mota guztietan sartzen ari dela.

Espedienteekin dauden pertsonen diru ahalmena murriztu egiten da. Kontsumoa murriztu egingo da eta beste sektore batzuek eragina izango dute. Hauetako diru iturriak murrizten ari zaizkienez, pertsonak kaleratzen ari dira. Horiek prekarioenak dira.

**ELA:** Merkatua orokorki gelditzen ari da. Orain gehienbat automozioa. Eraikuntza aurretik gelditu zen. Inguru honetan, automozioarekin lotura zuzenik ez dugu eta horregatik libratzen da. Baina Urola garaian enpresa gehienak automozioaren ingurukoak dira eta asko sufritzen ari dira. Hemen, Goierri, CAFek ez dauka zerikusirik, Indar eolikoena, Gerra Hermanos, Jaso Itsasondo... horiek ez daukate arazorik. Indarri

## Jaso lehena

**LAB:** Enpresak izugarritzko etekinak atera ditu azkeneko 15 urteetan. Momentu honetan, egia da, lan zama askoz ere bajuagoa daukala, Estatu mailan duelako potentzialitate handiena. Hasiera batean kaleratzeak planteatu zituztenean, ikusten genuen, enpresak bazituela bitartekoak egoera horri aurre egiteko, azkeneko urteetan irabazi handiak izan zituelako; eta beste aldetik, aukerak bazeudelako langile horiei beste irteera bat emateko, Jaso taldearen enpresa ezberdinetan kokatuz.

Hasiera batean greba horregatik planteatu zen, jendeak kalean ikusten zuelako bere burua. Han ez zen akordiorik lortu, Lan Ordezkaritzak ez zuen onartu espediente, beste neurri batzuk hartu behar zirela aurretik. Orain sartu dute Erregulazio Espediente bat.

**ELA:** Nik uste dut, Jasoren kasuan, mobilizazio garrantzitsu batzuk izan zirela eta horrek baldintzatu zuela Lan Delegaritzaren erantzuna langileen aldekoa izatea. Mobilizazio horiek antolatzea, bakoitzak bere aldetik egitea ez da posible. Jasón egindako lanarekin pozik egon behar gara. Adi egon behar gara, seguruasiki, horrelako kasuak etorriko direlako.



hasi zaio krisiak eragiten, baina beste arazo batengatik: finantza arazoengatik, ez da produktuaren arazoagatik. Eolikoa, urte urte igotzen ari den produktu bat da baina finantza krisiak harrapatu du. Enpresa handiek diru arazoak ere badituzte, bankuek ez baitiete dirurik ematen. Ez daukate dirua mugitzeko aukerarik eta ezin dituzte beraien planak aurrera eraman. Indar horrek harrapatu du. Idiazabalgo Jaso izan zen Goierrin, krisiaren eragina lehenengoetarikoa nabaritu zuena. Zuzenean eraikuntzarekin lotuta dago eta krisiaren ondorioa lehenengo sumatu izan zuena izan zen.

## Neurri egokiak?

**ELA:** Neurriak egokiak izan daitezke krisitik ateratzeko, zikloarekin bukatzeko. Beste ziklo batetan sartuko gara eta zortea baldin badaukagu hurrengo zikloan ere urte batzuk onak izango ditugu eta beste batzuk txarrak. Nik uste dut, hartu beharreko neurriak, sakonagoak izan behar dutela. Baina hori oso urruti dago eta horrek eskatzen du langileen mobilizazioa.

Gobernuak egoeraren soluzioaren giltza, krisia sortu dutenen eskuan jartzen ari dira eta dirua bankuei ematen ari zaie. Beraiek ikusten duten irtenbide bakarra, ekonomia berpiztea da. Mugitu dadila dirua, hasi gaitez denok berriro kotxeak erosten eta horrela lana izango dugu. Baina sistema horrek erakutsi du, hazten eta hazten joaten dela gero crack egiteko. Ni horrek ez nau batere konbenzitzen.

**LAB:** Gobernu ezberdinek hartutako neurriak, banketxei eta enpresariiei begira hartutakoak dira. Langileei begira ez dute inongo neurririk hartu. Inoiz hartu al dute ba? Neurri bakarra da, beste txiringitoren bat sortzea, formakuntzaren bidez, aurpegia garbitzeko. Hori horrela baldin bada, zein paper jokatzen du Inemek, Langaik edo Goiekik? Eusko Jaurlaritzak sortuta dauzkan hainbeste txiringitok zein paper jokatzen dute, orain krisi garaian, halako formakuntzaren beharra martxan jartzen baldin badute. Formakuntzaren beharra bideratzen dute Hobetuzen bidez, hilda dagoen erakunde baten bidez. Azken batean horrekin, UGT eta CCOO finantzatzen dira diru publikotik. Horrek ez dauka eragin praktikorik. Espedientean dauden enpresak aztertzen ari dira eta beraiek ere ez dakite zertan datzan laguntza hori eta zein formakuntza eman behar dieten. Guri partxeo hutsak iruditzen zaizkigu, gainera kanpainan egon garen bezala, beraien aurpegia zuritzeko eta krisiaren aurrean kezkatuta daudela azaltzeko.

## Erregulazio espedienteen aurka

**LAB:** Guk ikusten duguna da, aurreneko momentutik ez badiogu toperik jartzen planteamendu horri eta langile ordezkarien sinadurarekin joaten baldin bada espediente bat aurrera, hemendik sei hilabetera, egoera ez baldin bada bideratzen, ez daukagula argumenturik ezezkua esateko beste espedienteari.

Aurrera begira ez badago benetako apusturik, 6-8 hilabetera, plantilla erdia soberan dagoela aurkitu gaitezke. Eta nola egiten diozu aurre? Hori da guk beste sindikatu batzuekin daukagun talka. Batzuk ulertzen dute, langabezia-ko konplementoak negoziatu behar direla eta gero-gerokoa. Guk hori ez dugu garbi ikusten, inondik inora. Hori ikusten duguna da, nola edo hala, lanpostua ziurtatu behar dela. Eta hor indarra egin behar dugula lanpostuak bermatuta egon daitezen. Hor dago txokea. Ebentualitatean dauden kanporatu egin dituzte eta berdin da zein enpresetan. Enpresa mota guztiek, lehenengo garbiketa hortik egi-



ten dute. Kontratuak bukatzen zaienean, ez diete kontraturik berritzen. Kanporaketak, ez dira hain bortizki ematen eta erantzuna ere malguagoa da. Hor dago arazoa.

Edozein planteamendu mahaiaren gainean jartzen baldin bada, enpresaburuak behartzea, momentu honetan dauden lanpostu finkoak mantendu egingo direla. Besteak, zoritxarrez, kontratuak bukatzen denean bukatu egiten da.

Hemendik 3-5 hilabetera ez dugu argirik ikusten. Erregulazio espedienteetan sartuta dauden langile guztiak, momentu honetan, langabezian daude, baina beraien lanpostuetekin. Epe hori bukatutakoan, beraien lanpostuetara itzuliko dira. Baina 6 hilabetera egoera ez bada hobetzen, eta ez dago aurreikuspen nahikorik, enpresek beste neurri batzuk hartu beharko dituzte. Neurri horiek, kaleratzeak izango dira.

**ELA:** Enpresariak azken urteetan oso harrotuta dabilta eta ez daukate lotsarik. Edozein egunkaritan izugarritzko perlak irakurtzen dira. Aukera bat dela esaten dute, eta guretzat ere izan behar da. Baina horretaz konbentzitzea oso zaila da: guk barneratuta daukagu, gu aterako garela galtzen. Eta ez dago zertan galtzen atera. Lortu dezakegu lanaren erregulazio hobeto bat, azpikontratazioen desagertzea... Orain daukagu aukera, azken urteetan egin ezin duguna egiteko: onartzen dugu azken urteetan pixka bat eskuetatik joan zaigula eta orain daukagu aukera enpresa askotan azpikontratazioa eta abar kontrolatzeko.

Hiru erronka ditu ELAk. Lehenengoa eta seguraski eragin gehiago izango duguna, enpresako hitzarmenak. Enpresetako hitzarmenek ez dute balio, guk ez baditugu sinatzen. Hor kontu handia izan behar dugu, aurrekoa ez errepikatzeke. Aurrekoan eskala bikoitzak eta azpikontratazioak sartu zizkiguten. Eta orain suposatzen dut saiatuko direla sartzen lanaldi luzeagoak, soldata txikiagoak eta ahalik eta deserregularizazio gehien. Hor erronka bat daukagu eta zuzenean gure esku



dago. Hitzarmenak mantendu behar ditugu, edo hobetzen joan, ahal den neurrian.

Bigarren puntuan, erregularizazio espedienteak dira. Horiek ere gure esku egon daitezke, baina ez zuzenean. Azken finean, enpresa eta sindikatuen artean negoziatzen dira baina azken erabakia Lan Ordezkaritzak hartzen du. Lan Ordezkaritza azkenean, Eusko Jaurlaritzaren esku dago. Guk posizioa markatzen dugu. Gu orokorrean, kontra egongo gara, orain arte gertatzen ari dena jakin baitakigu: arazoak edukitzen hasi direnean, edo sumatzen hasi direnean, galerak pasatzen dizkigute langileoi eta horrekin ez gara sekula ados egongo. Printzipioz, gure postura, kontrakoa izan behar da baina azken batean, Lan Ordezkaritzak onartzen dizkie eta hori ez dago gure esku zuzenean.

Hirugarren puntua, azkenik, erronka handiena seguraski, gai guzti hauen gizarteratzea da, lehen aipatu dugun kanpainaren bitartez.

Arrikutsuena da, krisia Patronalarentzat beti da aukera bat eta beti zerbaitetarako aprobetxatzen dute. Orain hasi dira esaten, kaleratzeak dohainik izan behar direla, Lan merkatua oso-oso zurruna dela eta despidoak dohainik izan behar direla. Datuek justu kontrakoa esaten dute Baina beraiek aprobetxatu eta lortzen badute, krisi honetatik zerbait lortu dute. Duela 15 urteko krisitik, ETTeak, azpikontratak, ebentualitatea eta eskla bikoitzak atera zituzten. Eskola bikoitza kentzea 15 urte gertatu zaigu.

## Noiz arte?

**ELA:** Ez dakit. Jakin beharko luketenek esaten dute ez dakitela. Nik ez dakit zer den, ez dakitela edo ez dutela esan nahi. Nik behintzat ez dakit. Baina urte hasieratik hona nabaritzen ari da bai. Ez dakit azkenean nora joko duen. Denbora izango da gakoa

Langile pilo bat EREetan daude. Guri amorrua ematen di-

gu ordaintzen dugunak gu izatea baina momentuz langabezia daukagu, kobratzen ari gara, batzuk, baina krisiak asko irauten baldin badu eta langileak langabeziarik gabe gelditzen badira, zer gertatuko da? Niri beldurra ematen didana da, gehiegi luzatzea. Bi urte baino gehiago irauten badu, kaosa izango da. Egia esanda, zaila ematen du egun batetik bestera buelta ematea. Uda pasatu arte behintzat, berdintsu egongo gara seguru aski. Eta hilabeteak aurrera doazen heinean, enpresa gehiagok izango dituzte arazoak.

Jaso izan zen lehenengo kasua eta gainera nahiko gogorra. Egun batetik bestera, 48 pertsona kaleratu nahi zituzten. Hori iraila partean zen eta oraindik ezer gertatuko ez balitz bezala bizi ginen. Oso bat-batekoa izan da. 2008ko uztailean arte, inguru honetako enpresa gehienentzako iazko urtea lehenengo hiru hilabeteak, historiako hobereak izan ziren eta azkenengoak okerreak. Uztailean, ekonomikoki, urte zoragarri batean geunden, gehienak. Orain ematen du, kobazulo batean bizi garela. Denbora oso arin pasatzen da eta ematen du bizitza osoa krisian daramakigula baina hori ez da horrela izan. Baina horrek ez du askorako balio, ez baldin badakigu zenbat iraungo duen krisi honek.

**LAB:** Krisiaren irtenbidearen epeak luzatzen ari dira. Orain arte 2009aren erdialdea aipatzen zen eta orain 2010etik aurrera ere joango ote den hizketan ari dira. Langabezia tasak aurreikuspenetatik kanpo gelditu dira. Errealitate hori Euskal Herrira etorriko da.

Beste krisiekin alderatuta, beste faktore ezberdin bat dago: krisi finantzieroa da. Espekulazioan oinarritutako sistema bat izan da joan deneko 15 urte hauetan, prezioak fik-tizioki, beraien interesen baitan gora-behera puntuatzen ibili dira eta orain gertatzen dena da, kolapsatu egin dela sistema finantziarioa. Horri batzen zaio beste arazoa: enpresa askok ez daukate arazo produktiborik. Enpresa askori arazo produktiboa sortzen zaie, beraien bezeroek ezin

dutelako beraien produktua erosi, beraz ezin du bere produktua produzitu. Alde biko krisia da.

Aurrera begira, nahiko pesimista gara. Krisi finantzieroa dago. Kreditu-merkatua kolapsatuta dago eta hori deskolapsatzeko konfiantza behar da. Eta momentu honetan, justu ez dagoena, horixe da, konfiantza. Hori berreskuratu bitartean, kredituen flujoa ez da emango. Eta hori ematen ez den bitartean, krisi honen parte bat ez da konponduko. Alegia, finantzazio arazoa. Eta hori konpontzen ez den bitartean, enpresa askotako krisi produktiboa horrek sortu du, ez da konponduko. Ez dakigu konponduko den, edo utziko duten konpontzen, edo nola nahi duten konpondu. Historikoki horrela izan da eta hala izango da, hobe hala ez bada, botere ekonomikoa daukanak, horrelako egoera batetik lehen zegoena baino posizio hobean ateratzea bilatzen du. Tunelaren bukaerarik ez dugu ikusten eta zenbat eta gehiago begiratu, ikusten dugu hemendik 6 hilabetera, orain erregulazioan daudenak zer?

Klabea izan daiteke iraila. Egoera ez bada zeharo aldatzen, kaleratzeak etorriko dira eta egoera gogortu egingo da. Orain 1.711 langabetu baldin baditugu, irailetik aurrera, biderkatu egingo da datu hori. Alarmista deitzen digute askotan baina egiten ditugun analisiak bete egiten dira normalean, zoritxarrez edo zorionez. Gizarte osoan nabaritutako da krisia. Politikoak bitartean, abiadura handiko trenari buruz hizketan.


## **Kapitalismoa / Sistema aldaketa**

**ELA:** Guk oso argi utzi nahi duguna da, sistema aldaketa aldarrikatu behar dugula. Planteatzen diren soluzioak, sistema berdinaren barruan planteatzen dira. Krisiaren soluzioa nork eman digun esatean, sartu gaituen berdinak esaten da eta hori seguraski, ez da posible. Honek azken finean, aldarrikatzen dute, sistema bat ez dela jasangarria. Irabazten dutenean, langileek ez dute irabazten eta galtzen dutenean galerak langileei pasatzen dizkiete. Eta jakina, hori ezin dugu onartu.

Sistemaren defendatzaileek esaten dute krisiak ziklikoak direla. Horrela sistema oso erraza da: sistema hazi-hazi egiten da, etekinak irabazten dituzte eta noizean behin, jasangarria ez denez, krisi bat dago eta krisi hori langileek ordaintzen dute. Beraientzat sistema hori egokia da baina guretzat ez. Hori ez da krisi ziklikoa, sistemaren erru bat baizik. Guk aldarrikatzen duguna da, sistema aldaketa.

Hori ELAren filosofia orokorra da. Orain da kontua, langileengana nola eraman. Hori da gure erronka. Jendeak ikusten du arrazoa geneukala, baina horrekin bakarrik ez dugu ezer ere egiten. Zerbitu egin behar dugu. Guk uste dugu ekintza sindikalarekin sistema aldaketa probokatu dezakegula. Oso ambizioso da, baina hori da gure eginkizuna.

Gainera datuak oso-oso garbiak dira. Eustaten datuak oso adierazgarriak dira: EAEko aberastasuna soldatak igo direnaren hirukoitza igo da; aberastasun handia sortu da baina geroz eta okerrago banatzen da. Sortu da enplegu pila bat, baina soldatak ez dira igo. Horrek zer esan nahi du? Sortu den enplegu guztia prekarioa dela. Milaeurismoaren fenomenoarekin, azken batean, batz bestekoa beti berdina da. Hori somatzen krisiarekin somatzen da. Jendea kalera joan da. Europa guztian pairatzen ari den krisia, hemen bereziki sufritzen ari gara. Krisi berdinarekin Europan, langebezia, puntu bat edo bi igo da; EAEn hiru puntu igo da eta oraindik ez gara atzeraldian sartu; Europa atzeraldian dago. Eta Espainiakoa zazpi puntu igo da. Astakeria bat da hori. Datu horrek adierazten du lan merkatua nola dagoen. Oso malgua da, nahiz



eta beraiek esaten duten hemen kaleratzea oso zaila dela... Hiru hilabetetan, Espainia mailan, langabezia %7 igo da. Horrek ez dauka zentzurik. Hori horrela izateko, oso malgua izan beharra dauka lan merkatuak. Euskadin, %3<sup>a</sup>, Europako batz-bestekoa baino gehiago da.

**LAB:** Pertsonengain bideratuko balitz ekonomiaren estruktura bestea beste gauza batzuetaz hitz egingo genuke. Baina errealitatea da, kapitalismo gogorra dela. Oparoardietan oso ondo, eta aberastasuna sortzen da langileek sortzen dugulako. Banaketa hori esku gutxitan gelditzen da. Egoera txarra datorrenean, kapital akumulaketa hori egin duenak, bere irabaziak mantentze aldera diru publikoa jasotzen du eta langileak berak pairatu behar du, berak sortutako aberastunaren banaketa txar hori.

Sistema aldaketaz hitz egiten da baina ez da planteatzen. Botere politikotik ez da plantetzen sistema aldaketa. Sistema hau nola berbideratzen dugun baizik.

## **Ustekabeen harrapatu al zaituzte?**

**LAB:** Gu esaten ari ginen. Ekonomiak beti ziklo bat izaten du, batez ere ekonomia kapitalista batek. 10-15 urte, 20 gehienera, goraka-goraka baina gainbehera etortzen da. Historiak hala erakutsi digu. Esaten ari ginen, lehenago edo beranduago etorriko zela. Eta etorri da. Ez da egon merkatua kontrolatzeko mekanismorik. Merkatuari utzi zaio bere baitan nahi duen neurriak hartzean (hau da, ez da neurririk hartu) bere irabaziak handitzen joateko. Eta denok parte hartu dugu horretan, langileak barne.

**ELA:** Krisiaren sorrera oso globala da. Hainbeste urte globalizazioari buruz hitz egiten eta azkenean ulertu du zer esan nahi duen. Krisia mundu mailan sortu da, goitik behera hasi da. Orain hasi zaigu guri eragiten. Azkenean guk luzatu nahi



dugun mezua da, tamalez, urte askotan sindikatuok, ELAK bai behintzat, luzatu dugun mezu batean arrazoia geneukala: sistema hau ez dela jasangarria. Azkenean sistema izan da crack egin duena. Adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoan, azkeneko hilabeteetan gertatzen ari dena oso adierazgarria da: behin-behineko enplegua suntsitzen ari da eta hala ere EAEko ekonomia hazi egin da. Gauden sisteman, hazten denean, enplegua suntsitu egiten da. Hori ez da jasangarria. Zenbat hazi behar da ekonomia hori jasangarria izateko? Azken urteetan, ekonomia asko hazi da eta orduan jasangarria zen. Baina pixka bat gutxiago hazten hasi denean, enplegua deuseztu egiten da eta hori ez da posible. Ezin da urtero-urtero igo Barne Produktu Gordinaren % 6-7a, hori ez da jasangarria. Naturak berak ezin du jasan. Baina sistemak hori eskatzen du: pila bat hazten zara edo ez da jasangarria. Sistema bera da ez dena egokia. Hori urte askotan esan dugu baina urte askotan ekonomia ondo zihoan eta esaten ziguten sindikatuak esan behar duzuen dela, baina hemen denak oso ondo bizi gara.

## Goierri

**ELA:** Oso industrialia da Goierri, baina oso dibersifikatua eta momentuz horrek salbatzen du. Noiz arte? Ez dakigu.

**LAB:** Goierri daukagun zortea edo zoritxarra, nahiko enpresa indartsuak dauzkagula da. CAF, Indar... Beraiek zuzenki dituzten langileez aparte, beste langile pilo bat ere mugitzen dutela aldameneko tailer txikietan. Etorriko balitz aipatzen den egoera bat, eskualdea pikera doa. Argi eta garbi, 90eko hamarkadan bezala. Beste mekanismo batzuk hartu ziren egoerari aurre egiteko, eta momentuz behintzat CAFen kasuan, nahiko ondo doala ematen du. Beste enpresetan gertatzen ari dena hauetako enpresaren batean gertatuko balitz, eskualdea bertan behera geldituko litzateke. Alde ona, lanpostu asko sortzen dituztelako sektore ezberdinetan. Baina hau pikutara joaten baldin bada, eskualde osoa joango dela pikutara. Beranduago ere etor liteke ondorioa.

## Mobilizatorako gaitasuna

**LAB:** Gizartea bera aldatu egin da. Garai batean kanporaketaren bat baldin bazegoen, denak kalera ateratzen ziren. Langileen aldetik aldaketa handia egon da. Indibidualizazioa, gizarte aldaketa... ikaragarri ematen ari da.

Enpresariak betidanik erabili duten tresna da, momentu honetan Jason erabili dutena, langileen zatiketa bilatzea. Kanporatuak izan behar baldin badira 50 pertsona, borroka normalean 50 pertsonak egin behar dute, baina libratu direnek, egoera gogortzen baldin bada, hurrena ni izango naiz eta alde hemendik. Alde horretatik, lehenago elkartzun gehiago zegoen, harremanak zuzenagoak ziren, beste txispa bat zegoen. Jendearen egoerak badu eragina. Leporaino hipotekatuta dago jendea eta kontsumismo nazkagarrian sartuta gaudenez, jendeak esaten du, bakoitzak berea, Jainkoaren legea. Orain dela 10-15 urte askoz ere jende gehiago mobilizatzen zen. Belaualdi aldaketa nabaritzen da. Despidoa librea da. Hipotekatuta baldin banago, beste langile bategatik mugitu behar baldin banaiz, eta horrek ekar badezake despidu librea delako ni kalera joatea... hori da bilatu dena.

**ELA:** Aurreko krisia ezberdina izan zen. Azkenean, zuzenean eragin zien enpresa handiei, ez zegoelako gaur egun egon den koltxoi hori. Nabaritzen ari gara gutxinaka-gutxinaka, baina konturatu gabe 40.000 pertsona langabezia gelditu dira. Garai hartan 40.000 pertsona langabeziara joateak, seguraski, esan nahiko zuen enpresa askotan langileak kaleratzen ari zirela. Eta hori askoz ere traumatikoagoa da. Azken finean, hori da 15 urteetan lortu dutena: 40.000 pertsona langabeziara bidaltzea, ia inor konturatu gabe. Mobilizazioak leundu bezala egiten dira.



**mazda**

**Bikar, S. A.**

☎ 943 889 296

Faxa: 943 887 952

N-1 errep. 419 Kma

**BEASAIN**





**ZUBARA**

Eraikuntzak s.l.



Promozioak, Eraikuntzak,  
Erreformak...

943 65 34 93 - 649 46 32 89

**ABALTZISKETA**



**ARANDIA**

**GARAJEA**

Autoen konponketa



N-1, z/g Iurre Auzoa

**OLABERRIA**

☎ 943 88 09 47



## Greba orokorra egiteko nahikoa arrazoi

### ELAren kanpaina: 'Aberastasuna banatu'

Gizarte ereduari buruzko kanpaina egiten ari gara ELAn. Beste batzuk ere egin ditugu baina hau uste dut berezia izango dela, bizi dugun unearengatik. Azken finean, azken urteetan esan izan duguna esaten dugu: beste sistema bat posible dela, gastu soziala gehitzen duena eta azken finean, leloak esaten duena, aberastasuna banatu egin behar dela, eta egin daitekeela gauza hauek ez gertatzeko. Langileak barneratuta dauka lan sindikalak ekartzen duela etekina. Kanpaina honen erronka da langileei erakustea, sentsazio berdina gizarteratu dezakegula. Azken finean, gizarte osatzen dugun gehiengoa langileak gara eta sinisten badugu, enpresa barruan egin dezakeguna, kanpoan ere egin dezakegula. Nolabait gure ekintza sindikalarekin, enpresa barruan zuzendaritza desorekatzen dugun moduan, gizarte desorekatu dezakegu botere politikoa, eragin hori helerazi eta derrigortu eta beraiek ere behartu politika sozial hauek martxan jartzera.

Kanpainaren amaieramaiatzaren 15ean, arratsaldean, Beasainen, manifestazioa deituko du ELAk, kanpainaren bukaera bezala. Manifestazio herrikoa izatea nahi dugu.

### LABen kanpaina: 'Herria abian'


Momentu honetan, industriaren inguruan sortzen den lehenengo lerro horietan, gizarte osoa egongo da inplikaturik. Horrekin lotuta, abian jarri dugun 'Herria abian'. LABetik bultzatu da, baina beste gizarte eragile batzuk sartu dira. Ikusten dugu eman behar den erantzuna ez dela langileek bakarrik ematekoa, gizarte osoak erantzun beharrezkoa baizik. Eztabaidatu eta erabaki behar dena da, aurrera begira zer egin nahi dugun herri bezala. Hor, gustatu ala ez gustatu, denek parte hartuko du historia horretan. Zorritzarrez, batzuk esan dute ez dutela parte hartuko baina

gu komentzituta gaude, pausoak ematen diren neurrian, nahiz eta batzuk momentuz kanpoan egon, etorriko direla, ez dagoelako beste irteerarik.

### Greba orokorraren aukera

**ELA:** Kanpainaren barruan, badago sustraituta mobilizazio handi bat egiteko aukera. Greba Orokor bat egiteko baldintzak badaude, horretan ez dago dudarik. Kezka daukaguna da, greba orokor bat egiteko gai izango garen. Sindikatu abertzaleen eskutik etorri beharko luke baina horrek antolakuntza handia behar du. Guk martxan jarri dugun kanpainarekin hori ere neurtu nahi dugu. Zenbat langileengana iritsi gaitezkeen ikusi nahi dugu eta zenbaterainoko eragina izan dezakegun eta prest ote gauden greba orokor bat egiteko. Gauza handirik ez dago zehaztuta, baina nolabait, ezkutuan dagoen helburua hori da. Sistema aldatu behar dugula, ez dela nahikoa denbora pasatzea, sistema kontua dela, gauza estruktural bat dela... nik uste dut zerbait handia egin beharko dugula. Arrazoiak soberan daude.

**LAB:** Azken finean, ez daukagu ahalmen politikorik guk nahi ditugun erabakiak hartzeko Euskal Herriari begira. Eta hori ematen ez den bitartean, beti egongo gara Madril eta Parisen menpe. Sindikatuak aspalditik esaten du, 'Euskal Herrian lan eta bizi, eta bertan erabaki'. Hori gaur egun erakundeek ez dute bermatzen inondik inora. Azken finean, hemen hartzen diren erabakiak Estatuari begira dira eta nolabait, jauntxoei eta boterea dutenei begira, eta ez langileari begira. Nahiko arrazoi badaude, eta ez bakarrik, krisi historia honekin. Urtero lan istripuz hiltzen diren ehunka pertsonen greba orokor bat baino gehiago mezezi du. Azken finean, zergatik hiltzen dira hainbeste pertsona. Horrekin batera, historia hau guztia gehitzen badiotuz, Euskal Herriko gizarte mugitu beharrean dago.



www.iragarkiLaburrak.com  
uztarria.iragarkiLaburrak.com  
txintzarri.iragarkiLaburrak.com  
otamotz.iragarkiLaburrak.com  
elgoibarren.iragarkiLaburrak.com  
soraluze.iragarkiLaburrak.com  
bidasoamedia.iragarkiLaburrak.com

ukberri.iragarkiLaburrak.com  
oarsoaldekoHitza.iragarkiLaburrak.com  
tolosaldekoHitza.iragarkiLaburrak.com  
11barri.iragarkiLaburrak.com  
uroala-kostakoHitza.iragarkiLaburrak.com  
irutxulokoHitza.iragarkiLaburrak.com  
busturialdekoHitza.iragarkiLaburrak.com

*milaka bisita, egunero*

saltzeko  
erosteko  
eskaintzeko  
eskatzeko  
aurkitzeko

...

# zure-azoka

**Erregistratu zaitez**  
eta jarri zure iragarkia **webgunean:**

**norbanakoak**  
*doan*

**enpresak**  
*leku eskusiboa*

*Jarri zure  
iragarkia!*

Gainera, **ostiralero** paperezko edizioa  
**100.000ale**ko zabalkundearekin.

Maialen Bosque Atletico San Sebastianeko errugbilaria:

## Ordizian nesken taldea sortzea amets



**M**aialen Bosque errugbilaria da. Ordiziarra. 18 urte ditu. Bigarren batxilergoa egiten ari da Beasainen. Irailetik Donostiako Atletico San Sebastian taldean jokatzen du, nesken taldean.

Aurretik, Ordiziako taldean jokatzen zuen, mutilekin, beste aukerarik ez zuelako. "Taldea gutxi daude eta taldeak larri dabilta, neskek elkartu eta errugbian jokatzeke. Mutilak ere larri dabilta eta neskek gehiago", adierazi du Maialen Bosquek.

Nesketan, maila bakarra dago. Gipuzkoa, Araba, Bizkaia eta Nafarroako taldeen arteko Ligako jokatzen dute. Espainiako Koparako bi euskal talde sailkatzen dira.

Adin eta maila ezberdintasun handia dago. "Nire taldean, gazteenak 17 urte ditu eta zaharrenak, 33. Beste taldeetan ere horrela dabilta, maila bakarra dago eta. Alde handia dago, berrien eta beterranoen artean. Mutilek maila ezberdinak daukate, baina guk ez. Justu-justu ibili gara, neska faltan, aldaketarik ezin egin... gogoarekin joaten zara baina jenderik ez baldin bada, ezin da gauza handirik

egin. Gero eta neska gehiago datoz, baina denak berriak".

Dena den, ordiziarrak adierazi digunez, gero eta neska gehiago ari dira gerturatzen errugbira. Eta hurbiltzen direnak, gelditu egiten dira. Horixe gertatu zaio Nerea Agirre ordiziarrari. Maialenek animatu eta taldean jarraitzen du, Ordizian bertan taldea sortzeko gogoarekin gainera. "Ordizian ere saiatu gara nesken taldea ateratzen baina momentuz ez da posible izan. 20 neska behar dira taldea ateratzeko. Beste neskaren bat ere ari da Ordizian, baina jarraitzeko ez dago talderik. Donostiara joan be-

har zara gutxienez", azpimarratu du Maialen Bosquek.

Kanpotik, kirol astakilo samarra ikusten da. "Futbola baino lasaiagoa da. Ikasi egiten duzu minik ez hartzen. Polita da", gaineratu du.

### Mutilekin

Orain arte, mutilekin jokatu izan du, maila ezberdinetan. Taldeko neska bakarra zen Maialen. Baina adinagatik, aurten utzi egin behar izan du aurtengo denboraldian.

Neskekin jokatu edo mutilekin jokatu, alde handia dagoela esan digu. "Mutilekin jokatzen ikasten duzu baina ez duzu hainbeste gozatzen. Mutilak, denak, zu baino handiagoak dira, fisikoki ere indar gehiago daukate... alde handia dago. Nesken artean parekatuago gaude. Mutilak ere ez ziren berdin sartzen, eta ez da hainbeste ikasten. Lehenengo urtean asko nabaritzen zen hori. Gero behin ezagutu eta gero, arazorik gabe. Kirola berdina da, baina ezberdina. Neska nintzelako mutilak askotan ez ziren eroso sentitzen. Orain, Ordiziako mutilak goi mailan dabilta eta gozatu egiten du partiduak ikustera joanez. Gainera, horietako batzuekin jokatu izan dut. Inbidi pixka bat ere bai".

### Gozatuz

Bere lekua aurkitu du Maialenek eta gozatzen ari da. Ez da ezaugarri berezirik behar errugbian jokatzeke. "Gogo eta gogo. Behin talde batean zaudela, entrenatzeko eta partiduak hartzeko konpromisoa. Beste guztia egiten da. Gogo jarren baldin baduzu, txarra



## “Ume txiek bezala gozaten dut errugbian”

### Errugbiaz gain, beste kirol bat:

Ez dakit, futbolean ibili izan naiz. Nik beti izan dut, gustatu gustatzen zaidala, baina gozatu, errugbian bezala ez dut inoiz gozatu. Ume txiki bat bezala sentitzen naiz. Errugbiak badu zerbait, kateatzen zaituena.

### Gehiena gustatzen zaizun ikasgaia?

Euskara.

### Eta gutxiena?

Gaztelera.

### “Handitan” zer izan nahi duzu?

Euskal Filologia egiteko asmoa daukat.

### Oporretarako leku bat:

Nafarroako herri txikiren bat, mendi aldean.

Lasai-lasai.

### Urtaro bat:

Uda.



ala ona izan, gozatu egingo duzu. Beste kirolengandik oso ezberdina da. Joko gehiago dauka”.

Astean bi egunetan joaten da Donostiara entrenatzera eta asteburuetan izaten dituzte partidukoak. Partidu ondorengo parrandaxoak ere egiten dituzte. “Lagun asko egiten dituzu. Partidua bukatutakoan, beste taldekoekin batera trago batzuk hartzen ditugu... Zelaian arerioak gara, baina zelaatik kanpora lagunak. Giro polita, oso giro ona daukagu, arbitro, entrenatzaile eta jokalarion artean”.

### Ametsa

Errugbilari bezala bere ametsa zein den galdetu diogu ordiziarrari. “Ahalik eta urte gehiengan errugbian jokatzuz gozatu. Eta ahal bada, Ordizian taldea sortzea. Nik uste dut denborarekin posible izango dela. Polita izango litzateke. Neskak badatoz, eta polita izango litzateke etxean jokatzen jarraitzeko aukera izatea. Saiatu egin behar da: partiduren batzuk Ordizian jokatzuz, entrenamenduak antolatuz... Besteok ere hala hasi ginen”, erantzun du.

Beraz, Goierriko neskei,

errugbira gerturatzeko gonbidapena egin nahi die Maialenek. “Animatzeko. Probatu dezala jendeak. Ea hamar bat neska elkartzten garen. Urte batean, entrenatzen aritu, lagunarteko partidak jokatu, ikasi, eta gero ea animatzen garen”. Taldea sortzen denean elkartzeak gelditu gara.

### Iparraldean maila ona

Beste maila batean jokatu nahi izanez gero, zein aukera izango lukeen galdetu diogu ordiziarrari. Euskal Herrian errugbi mailarik onena, Iparraldean eta Biz-

kaian dago Maialen Bosquek adierazi digunez. “Iparraldeko taldeak oso oso onak dira. Gu futboleantxikitatik ibiltzen garen, bezala, beraiek errugbian ibiltzen dira. Diferentzia izugarria dago. Beraien aurka partida bat jokatu genuen eta izugarria da aldea. Izugarritzeko teknika daukate. Talde ona nahi izanez gero, Iparraldean daukagu aukera. Bizkaian ere, indarra hartzen ari da errugbia eta gainera jende ona daukate. Getxoko neskek, iaz, Kopa irabazi zuten Espainia mailan”.

**Iñauti**  
Hertz Klinika  
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO  
602 Zbk. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK  
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN  
☎ 943 88 46 28

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

**ibai ondo**  
barne diseinua  
dekorazioa

Garai berrietarako  
ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa  
Tel.: 943 16 40 40  
BEASAIN

**MUJIKA**  
LIBURUDENDA


Tel. / faxa: 943 88 11 94  
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

## Sekou Diarra maliarra, Beasainen, bere bigarren etxean




**H**ipopotamoen herrikoa da Sekou Diarra. Malikoa hain zuzen ere. Malik hipopotamoa esan nahi du banbararez. 35 urte ditu eta bere bigarren etxea aurkitu du; Beasain. Zorionsua da gure artean, orain langabezian badago ere. Soldatzailea da. Hiru urte daramazki

Beasainen, dena den, bere herritik, askoz ere lehenago atera zen, 1993an. Beasaina iritsi aurretik, Boli Kosta, Frantzia, Holanda, Alemania, Katalunia, Madrilen ibili izan da bizimodu hobeko baten bila. Bere emigrazio historia kontatu digu, baita bere herriari buruzkoa ere.



**SILVIA MIRAS CASASAYAS**  
ODONTOLOGOA  
KOL. Zka. 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87  
SAN INAZIO KALEA, 2  
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



# ondoeta

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO  
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN  
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: [ondoeta@ondoeta.com](mailto:ondoeta@ondoeta.com) [www.ondoeta.com](http://www.ondoeta.com)  
© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxes: 943 88 08 72  
201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

Telefonotik lehenengo harremana egin eta berehala jarri dugu hitzordua, otsailaren 9tik langabezian baitago. Soldatzailea da eta Sunsundegin aritu izan da lanean, azpikontratatu bezala, 2006ko urtarriletik 2009ko otsailera arte. “Azaroan lana jaisten hasi zen eta krisia dela eta lanik gabe gelditu naiz. Oso zaila dago gauza. Espero dugu, igandeko hauteskundeen ondoren gauzak aldatuko direla”, adierazi digu Sekou Diarrak.

Telefonoak jo dio. Deia erantzun du. Frantsesez hitz egin du. “Malin frantsesa eta Banbara hizkuntzak hitz egiten ditut. Hizkuntza nazionala banbara da. Frantsesez jende gutxi daki. Hemen euskaraz dakitenek, gazteleraz ere badakite, baina han ez, erdiek-edo jakingo dute frantsesa. Etxean Banbara hitz egiten dugu. Gurasoek ez dakite frantsesik. Frantsesa eskolan ikasi nuen. Ez dut ikasketa handirik baina ikasi dudana apurra, frantsesa izan da”, zehaztu du.

**Frantsesa, banbara eta gaztelera badakizkizu. Euskararekin saiatu al zara?**

Euskara ikasten hasi nahi dut. Bi aldiz jaso dut eskutitza ikastaroak jakinaraziz, baina ezin izan naiz orain arte joan. Orain langabezian nagoenez, ea saiatzen naizen. Nagoen lekuko hizkuntzak ikastea gustatzen zait. Bertako jendearekin gertuagoko harremana izaten da. Niretzat hizkuntza,

gerturatzeke tresna da. Gustatuko litzaidake euskarra ulertu eta pixkatxo bat hitz egitea. Lotsa ematen dit toki batean denbora bat pasa eta bertako hizkuntza, pixka bat ez jakitea. Hitz batzuk badakizkit esaten: kaixo, eskerrik asko, ez horregatik, egun on, berdin, zer moduz, neska polita...

**Langabezian zaude orain. Hona etorri zinenean, egoera hau imajinatzen al zenuen? Gutaz ze irudi zenuen?**

Denak aberatsak zinetela adibidez. Gehienek daukaten ideia hori da: aberatsak zaretela eta nahi dena erraz lortzen dela. Emigratutakotan, ideia hori goitik behera aldatzen da. Konturatzen zara, aberatsak badaudela, baina pobreak ere bai. Eta dirua ez dela hain erraz lortzen, gogor lan egin behar dela.

Gutariko askori gertatzen zaio, etorri eta iparra galtzea. Hiri handietan gertatzen da, iparra galduz gero, pertsona ez egokiekin elkartu eta behar ez den lekura bideratzea. Ateratzea zaila den munduan sartzen zara. Eta hemen ez daukazu, gomendiorik emango dizunik. Norbera da bere buruaren jabe, ez daukazu amarik, aitarik edo anairik, bide onetik bideratuko zaituena.

Nire anaiak etortzeko asmoa azaldu du baina nik ez etortzeko esan diot. Handik dena oso erraz ikusten da, oso polita, zoragarria. Baina ez da horrela. Lehenengo hizkuntzaren



## “Erlijosoa baino lehenago pertsona izan nahi dut”

Malin biztanleen %90-95 musulmanak dira. Sekouren aita musulmana zen eta bera ere praktikantea zen. Baina hona etorri baino lehen erlijioa alde batera utzi zuen. “Ez zait gustatzen. Guretzat arazorik larriena erlijioa da zergatik emakumeak beti menpean egon behar du? Hango emakumeak ezin du ezer egin. Senarra pertsona ona baldin bada, ondo, baina bururik gabeko senarra baldin badu oso gaizki ibiltzen dira. Gizonak emazte bat baino gehiago eduki ditzake eta ume mordo bat eduki. Baina gizonak ez du bere ardurarik betetzen. Gutxiengoak aldaketak nahi ditu baina oso zaila da ahotsa altxatzea. Oraingo gobernuak, gutxienez, gaiak hitz egiten du eta hauteskunde kanpainetan emakumezkoen aldeko kanpaina egiten dute, emakumezkoek ere bozka dezaten bultzatuz”.

Diarrari hori guztia ez zaio batere gustatzen. “Jendea ezjakina da, ez da hausnartzera jartzen. Beste iritzi bat duena oso gaizki ikusia dago. Hona etorri nintzenean hau ere ikusi nuen: afrikarrentzat, txarrak, mendebaldekoak dira, islamaren aurkakoak. Ostiraletan, mezkitera joaten nintzenean, mendebaldekoek buruz gaizki hitz egiten zen. Nik beti galdetzen nuen, ea herrialde oso bat nola izan daitekeen gaiztoa. Hona etorri nintzenean, ikusi nuen hori horrela ez dela. Gurutze Gorrikoek, janaria ematen digute, edaria... lan egiteko paperak ematen dizkigute. Niretzat honek ez dauka preziorik. Berdin zait musulmana zaren ala ez. Nik, erlijiosoa baino lehenago, pertsona izan nahi dut. Niretzat hori da gizatasuna. Herrikide asko ezagutzen ditut musulman herrietan ibili direnak, Argelia, Maroko, Libia... baina han musulmanak izanda, kaka bezala tratatu izan dituzte. Teorian, besoak zabalik hartu behar zituztenek, ez dituzte horrela hartu eta hemen bai. Eta hemen ondo sentitzen naiz. Pertsona batengan garrantzitsuena gizatasuna da, ezin duzu pertsona bat ezertara behartu. Eta guk arazo hori daukagu Malin: ez digute ezertan laguntzen, agindu bakarrik”.

**M**alira joan eta gauzak aldatzea gustatuko litzaidake, baina ez daukat bitartekorik hori egiteko. Gustatuko litzaidake norbaitekin egon eta aholkuak eman. Aldatzeko gauza asko dago.

## Atzerriko kronika

Aspaldi hasi zen Sekou Diarraren atzerriko ibilbidea. Boli Kostan ia 14 urte egin zituen eta bertan lortu zuen Parisa hegazkinez joateko baimena. Handik, Holandara, Amsterdamera, joan eta hilabete inguru egin zuen. Espainian paperak lortu eta lan egitea errazagoa zela jakin eta Kataluniara jo zuen Alemaniatik bueltan, 2001. urtea zen. Soroan lan egin zuen, kainabera, patata, kalabaza... bilduz han lortu zituen paperak. "Nagusi batek lagundu zidan lan eta erresidentzi baimenak lortzen. Baina soroetako lanak, denboraldi-koak izaten dira. Lagun batek komentatu zidan, Madrilen, eraikuntza asko zegoela eta dirua irabazten zela". Madrila joan eta ia lau urte egin zituen, batez ere eraikuntzan lan eginen. Baina momentu batean, lana ez zen hain erraz aurkitzen eta lanik gabe gelditu zen. Orduan erabaki zuen soldatzaile ikastaroa egitea. "Lagun batek, hemen lana aurkitu zuen, orain Altsasun bizi da, eta hark esan zidan hona etortzeko. Hona beraz, lan kontratuarekin etorri nintzen. Lan egonkorra zen".

### Bigarren etxea

Beasaina iritsi eta bere bigarren etxea aurkitu du Sekouk. "Jendea Euskal Herrira ez da erraz etortzen, beldurra izaten du, politikagatik. Baina guk ez daukagu zerikusirik hemen gertatzen denarekin eta etorkinentzat hau oso-oso ondo dago. Ni etorri eta gaur arte hemen nago. Argi daukat, hemendik joan beharra baldin badaukat, nire herrira joateko izango dela, ez naiz beste inora joango. Etxean bezala sentitzen naiz. Denekin ondo konpontzen naiz eta Beasain asko gustatzen zait: hiri txiki bat da, ondo kokatuta dago, Donostia gertu dago, jende asko ezagutzen dut... Hemen lortu dut, nire buruarekin gustura egotea, ".



eta paperen arazoak konpondu behar ditugu. Bestela, hor zaude, baina ez zara existitzen. Hizkuntzarik gabe inork ez zaitu ulertzen eta oso gogorra da. Paperak ere beharrezkoak dira, lan egiteko, eta eskubide eta betebeharrak edukitzeko. Hori dena lortzea da lehenengo fasea. Eta gero lana aurkitu behar duzu, lan egonkorra, eta diru pixka bat irabazten dena. Eta hori ere oso-oso zaila da. Lan egonkorra bilatzea oso zaila da, zorte kontua ere bada. Leku batzutan, etorkina izateagatik, beste azal kolore bat edukitzeagatik, arazoak ere izaten dira. Kultura ezberdina daukagu eta askotan, hemengoek, txantxa bezala esaten dituztenak, guk gaizki hartzen ditugu. Nik ere hasieran gaizki pasatu nuen.

**Gaizki sentiarazi izan zaituen adibideren bat jarriko al duzu, guk geuk jakin eta ez erreplikatzeko?** Niri ez dit molestutzen, badakidalako txantxa bezala egiten dutela, zuregana gerturatzeko. Beltza deitzea adibidez. Baina iritsi berria den beltz batek ezin du ho-

ri ulertu. Aldaketa handia da. Tontakeria horregatik iskanbila sor daiteke, diskriminatuta sentiarazten dira eta arrazismo puntu bat sentitzen dute. Iritsi berriak diren beltz gehienei gertatzen zaie. Denbora pasa ahala, ulertzen du eta ez da arazorik izaten.

### Arrazistak al gara?

Ez, nik ez dut arazorik izan.

## **P**ena pixka batekin itzultzen gara Afrikatik, baina lanean jarraitzeko gogoarekin ere bai.

Kasu bakarra bizi izan dut: behin, Donostian, ez ziguten dantzaleku batean sartzen uzten, gonbidapenekin sartu behar zela esaten ziguten. Gu hiru ginen, oso ondo jantzita geunden. Gu hantxe gelditu ginen, ea sarrierarik saltzen zuten ikusteko. Egun hartan, ordaindu gabe jende asko sartu zen. Ertzaintzari deituko ziola esaten zigun eta gu desiatzen geunden, egoera azaldu eta salatzen.

### Lana bilatzeko zer moduz

### zabiltzate?

Ni hona, lan kontratuarekin etorri nintzen, 2006ko urtarilaren 9an. Nik lana bilatzen ez daukat esperientziarik. Lagunak ezagutzen ditut, Madrildik etorri eta hemen lana aurkitu dutenak. Orain bai, zaila dago baina orain arte ez da zaila izan.


### Zergatik, nolatan hartu zuen emigratzeko eraba-

### kia? Erraza izaten al da erabaki hartzea?

Erraza ez da izaten. Nire aita, 7 urte nituenean hil zen eta ondo konpontzen ez nintzen osaba batek hazi gintuen. Gustatzen ez zitzaizkidan gauza asko zeuden, ez nengoen gustura. Eskolan jarraitzeko modurik ez nuen, amonak laguntzen baitzidan eta zahartzen ari zen. Momentu bat iritsi zen, han ez neukala zereginik, ekonomikoki laguntzeko inor ere ez neukalako. Ikas-

ketak utzi eta Boli Kostara joatea erabaki nuen. Han berriz, 1993an, giro politikoa nahastu egin zen eta etorkinek arazoak izaten hasi ginen. Portuan lan eginen nuen eta 1996an lana galdu nuen. Ordura arte, inoiz ez nuen pentsatu Europara joatea. Lagun batekin, beste herri batera joan nintzen, eta meategietan hasi ginen. Ordurako bage-neukan Europara etortzeko ideia, oso zaila bazegoen ere. Beraz, meategian lan egin, diru pixka bat egin eta bietako bat Europara etorriko zela erabaki genuen, eta gero besteari lagunduko ziola. Meategietan lan egin genuen lau bat hilabetean. Ez genuen nahiko diru Europara etortzeko eta Boli Kosta baino hobea zen beste herrialde, Gabonera, batera joan zen nire laguna. Nik diru guztia eman nion, konfiantza nuen eta. Baina nire laguna nitaz ahaztu zen.

Negozio ilun samar bat aurkitu nuen, baina ez neukan beste aukerarik, telefono deien negozioa zen. Diru pixka bat lortu nuen eta Europara etorri nintzen,



1998an. 2.500 euro inguru nituen aurreratuta.

**Telebistan cayukoetan afrikarrak ikusten dituzuean, zer sentitzen duzue?**

Pena handia. Ni etorri nintzenez, batzuk Ceutara joaten ziren, paperak lortzera, jendeak ez zuen soroan lan egin nahi. Baina ni base-rian hazitakoa naiz eta ez zitzaidan axola soroan lan egitea. Gaur egun datozenek, beraien bizitza arriskatzearekin batera, hona etorri eta ez daukate paperik. Asko herriratzen ari dira.

Nik esaten diet, ea zertara datozen. Lehen merezi zuen baina orain ez, ez dauka zentzurik bizitza arriskatzek. Bi aldiz joan naiz Malira, eta hango lagunei esaten diet ez duela merezi hona etortzek, baina ni hemen egonda, ezin dut inor komentzitu. Hain gaizki baldin badago, zu zergatik zaude han? Galdetzen dute. Baina ulertzen dutenak ere badaude. Kanpainak egiten ari dira, Europara joanda, bizitza arriskatzeaz gain, egoera zaila dagoe-lasanez. Denborarekin aldatuko da eta jabetzen ari dira, Europara iritsi eta ez

daukazula dena. Baina oso zaila da komenzitzea.

**Zure anaiari laguntzen ari zara, ezta?**

Bi hektarea lur erosi dizkiot eta arrosa eta tipula lantzen ditu. Hasteko nahikoa du. Beraiek lana egingo dute eta beraientzako izango da. Nik hemen lan egin behar dut. Ezin diet dirua bidali, beraiek ere lana egin behar

daude. Gure kultura hori da, baina ez nago ados horrekin. Badakit solidarioa izan behar dela, baina besteak ezin dira alperkerian bizi. Denak mugitu behar dira. Hemengo sistema gustatzen zait. Pobrezia bada, baina bizitza ikusteko beste forma bat dago. Nahiz eta zuk dirua eduki, zure arrebak lana egin beharko

baina Malira joanda ere, hau nire zati bat da. Gustatzen zait. Oso euskalduna sentitzen naiz. Gainera, antzekotasun batzuk baditugu, txalaparta adibidez. Txalapartaren doinu berdina daukagu, era berdinean eginda dago. Makilekin jotzeko modua aldatzen da, bestela, berdina da. Izateko eran antza badugu euskaldunok eta maliarrok: zintzotasuna, hitzekoak, langileak... nahiz eta hori ere aldatu den. Euskal kultura eta euskaldunak gustatzen zaizkit. Egia esateko, oso zori onekoa sentitzen naiz. Oso gustura nago, eta hori da garrantzitsua.

**Zer botatzen duzu gehiena faltan?**

Janaria eta familiaren berotasuna, nahiz eta nik familiarekin hainbesteko harremana izan. Couscousa jateko gogo daukat, gurean artaxikiarekin egiten da, baina, hemen marokoarra saltzen dute. Beste salta berezi bat ere bai. Baina hemen ere gauza onak daude. Sagardotegiko giroa, txuletak, sagardoa... asko gustatzen zait. Pintxoak, ardoa... hori dena ere bai.

**B**easainen lortu dut nire buruarekin gustura egotea.

dute. Egunero goizeko 5,30etan jaikitzen naiz eta beraiek han, lau hilabetean dute lan gogorra, euri garaian. Lan egin beharra dago, ezin dute nire diruaren zain egon. Ezin da lanik egin gabe bizi. Etorkin asko dago hemen, lanean, eta dirurik gabe, diru guztia bere herrira bidaltzen dutelako, bere bizitza ahaztuz. Hobe da, diru pixka bat bidaltzea, baina han ere lan egin dezatela. Seme-alabak izango dituzte eta ezin ditugu mantendu. Ni anairik zaharrena naiz eta denak nire zain

du, ez da zure kontura bizi-ko. Ezin zara besoak gurutzatuta gelditu, besteengandik zer iritsiko zaizunaren zain. Gure kultura da, baina inorentzat ona ez bada, aldatu egin behar da, denontzat da eta txarra. Malin, Senegalen, Boli Kostan, Burkina Fason... hori gertatzen da eta ez dago ondo. Aldatzeko, ixiltasunarekin amaitu behar da.

**Hamar urte barru non ikusten zara? Beasainen edo Malin?**

Hamar urte barru? Ez dakit gauzak nola aterako diren,

# Martxoaren 16tik 22ra ospatuko da Seguran XIV. Iparra-Hegoa astea



Iparra-Hegoa hamalau-garregoz prest da, Segurako Iparra-Hegoaren ekimenez. Euskal Herriko herrialde guztietako jendearen bilgune honetan ekitaldi ugari

izango da: informazio hitzaldiak, ikastaroak, haurrentzako topaguneak, ikastolen arteko elkarteak, jolas tailerrak, mendi irteerak, herri bazkariak, kirol jar-

duerak, azokak, kontzertuak... Aurten, Lurra izango da astearren ardatza.

**Martxoak 16, astelehena:**  
**19:30ean:** Gaia: Amaieur

1512-2012. Hizlaria: Gaizka Aranguren eta Antton Curcharry. Kultur Etxean.

**Martxoak 17, asteartea:**  
**19:30ean:** Gaia: BLE-Bihar-ko Lurraren Elkartearen aurkezpena. Hizlaria: Pantxika Altxuet. Kultur Etxean.

**Martxoak 18, asteazkena:**  
**19:30ean:** Gaia: Ekoizle eta erosleen arteko salmenta modu zuzenak. Hizlariak: Alberto Irastortza (abeltzaina-Olaberria) eta Jean Mixel Urrutia (barazki ekoizlea-Nafarroa Behea). Kultur Etxean.

**Martxoak 19, osteguna:**  
**19:30ean:** Bertso poteoa eta afaria: Sustrai Colina eta Jexux Mari Irazu, Kuxkuxtu txaranga lagun. Afari txartelak Elorripen salgai.

**Martxoak 20, ostirala:**  
Segurako eta inguruako haurrak eta gonbidatutako ikastoletako haurren arteko egun pasa. Lartzabaleko (Nafarroa Beherea) Manex Erdozaintzi Etxart Kolegio-koak etorriko dira aurten.  
**11:00etan:** Harrera. Ondo-

## Harpidetza txartela

Urteko kuotak: Egin  aukeratutako kaxan

**Goierri** 27 euro

**GOIBESKO hitza** 67 euro

**Goierri** + **GOIERRIKO hitza** 72 euro

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefono zenbakiak:..... NAN:.....

Kontu zenbakia(20 digitu):.....

Bidali txartela  
helbide honetara:  
Goierritarra  
Urbalde plaza 7 behea  
Beasain

Harpidedunen  
arreta zenbakia:  
902 82 02 01

ren, herri-itzulia Ardirarra bisitatuz. Irrati saioa...

**12:30etan:** Herriko haurren eta gonbidatuen arteko bazkaria.

**13:30etan:** Xiba jokoak.

**14:30etan:** Haur ikuskizunak: Txan magoa, pailazokak, kantuak eta abar. Ondoren, txokolate jana eta buru handiak.

**15:00etan:** Kale animazioa, Dangiliske euskal fanfare taldearekin.

**23:00etan:** Kontzertua: Ene beltza eta Zpez Mukaki.

### Martxoak 21, larunbata:

#### Goizean:

● Mendi irteera: Euskal Herriko herri ezberdinetako mendizaleak herrikoekin batera inguruak ezagutzuz.

● Haurren jokoak eta taillerak.

● Margolari Nobelen lehiaketa.

**16:30etan:** Haur eta helduentzako Kulki, jolas eta jokoen jaia: Baseri jokoak.

**17:00etan:** Kultur etxean: margo lanen sari banaketa.

**18:00etan:** Herri kirolak: Idiazabalgo taldearen erakustaldia.

**19:00etan:** Taloak eta Arabar Errioxako eta Nafarroa-

ko ardoen dastatzea, Kuxkuxtu txarangak alaitua.

**23:00etan:** Inazki Lapurdiko taldearekin dantzaldia.

### Martxoak 22, igandea:

#### Goizean:

● Kriseilu txistulari taldearen goiz eresia.

● Herriko eta herrialde bakoitzeko produktuen azoka.

● Sukalki edo gisatu prestaketa, lehiaketa.

● Animazioak: Baigorriko gaiteroak, hainbat koru herrian zehar eta herriko gazteen korua, dantza ikuskizuna Arbonako taldeak eskainia, Lekeitioko Tirriki-Tarrakal taldea.

**13:00etan:** Txakolin dastatzea.

**13:00etan:** Euskal Herriko herrialdeen arteko lotura sinbolizatzen duen Gereziendoko ekitaldia. Gonbidatu berezia, Mixel Beherekoirigoin (Euskal Herriko Laborantza Ganbarako lehendakaria).

**14:30etan:** Herri bazkaria. Kuxkuxtu txarangak kantuz alaitua.

**Ondoren:** Sukaldaritza lehiaketako sari banaketa.

**Ekitaldiari amaiera emateko:** Mutxiko dantzak.



## Euskal Herriko mus txapelketa

Martxoaren 14an, Seguran jokatu da Euskal Herriko Mus txapelketa. Aurretik, Euskal Herriko zazpi herrialdeetan egin diren mus kanporaketatik sailkatutakoek jokatu dute finala. 64 bikote arituko dira lehiatzen.

Goizean, 9etan bikote guztiak elkartu eta 9,30etan hasiko dira musean. Sariak honakoak dira: bikote irabazlearentzat, 3.000 euro, bidaia eta txapelak; bigarrenentzat 1.500 euro eta bidaia; hirugarren bikotearentzat, 500 euro; eta laugarrenentzat 500 euro.

San Inazio, 14 BEASAIN  
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA  
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA  
☎ 943 650 239

# Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

## PSIKOLOGI KLINIKOA

**Argi** Jose Ramon Pato Prieta  
Psikologian lizentziatua  
Elkargokide zenbakia: E-2644  
RPS: 42001

**AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041**  
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

☎-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA

## AUSO EGI

### ERREFORMAK

- ✦ Tximini eta ekonomikak
- ✦ Berogailuak
- ✦ Iturgintza
- ✦ Zeramika erakusketa
- ✦ Bainuko altzariak

## SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Mota guztietako gida-baimenak

Aita Urdaneta  
ORDIZIA  
☎ 943 88 72 76

Ataun

## Korrika 16ko ekitaldiak

### Martxoak 14, larunbata:

**16:00etan:** Mus txapelketea, San Gregoioko pelotazale eta Artadi elkarteetan.

### Martxoak 15, igandea:

**17:00etan:** Txan magoa. Herri Antzokian. Sarrera: 3 euro.



### Martxoak 18 eta 25:

**21:30ean:** Korrika dokumentala, Herri antzokian.

Ataun

## Ataungo I. Raid-a

Zaldien iraupen luzeko proba jokatu da lehenengo aldiz Ataunen, San Gregorion, martxoaren 14an, Alarpe zalditegiak antolatuturik. Orduetegiak honakoak dira:

**9:00etan:** Zaldien kontrola.

**10:00etatik**

**11:00etara:** Zaldien irteera.

**11:30etik 12:30era:** Lehenengo zaldien kontrola.

**14:30ean:** Lasterketaren amaiera.



Beasain

## Mendiko segurtasun tekniken ikastaroa

Beasaingo Arrastaka mendi taldeak antolatuta, segurtasun teknikak eta sokak erabiltzen ikasteko ikastaroa izango da martxoaren 14an eta 15ean. Soken erabileran oinarri-oinarrian jakin beharrekoak praktikan jartzearekin batera, ikastaro honen helburua, parte-hartzaileek mendi irteeretan segurtasunez eta autonomiaz aritzeko oinarritzko ezagutza lortzea izango da (bai segurtasunari dagokionean, soken erabilerari dagokionean, progresio teknikei, edota autoerreskaterako teknikei dagokionean).

Ikastaro hau Antzizar Kiroldegian egingo da martxoaren 14 eta 15ean. Orduetegi honakoa izango da: larunbatean, hilak 14, goizean 10:00etatik 14:00etara, eta arratsaldean 16:00etatik 19:00etara. Igandean, hilak 15, goizean 10:00etatik 14:00etara.

Ikastaro honetan parte hartu ahal izateko beharrezkoa da mendiko federatu txartela izatea.

Legorreta

## Talo ikastaroa

Legorretako Udaleko Kultur Batzordeak taloak egiten ikasteko ikastaroa antolatu du Kutxa Gizarte Ekintzaren laguntzarekin. Ikastaroa Aldaieta Jubilatu Elkarteko ki-deek emango dute, Jota-Kea elkartearen, astelehenetan, martxoaren 23an hasita. Gehienez ere bost ikasletako bi talde osatuko dira, bata arratsaldeko 6etatik 7,30etara eta bestea 7,30etatik gaueko 9etara. Ikastaroan oreka egiten, taloa jotzen eta txapan erretzen ikasiko da. Ikastaroa hastean talo ohol bat oparitu zaio partaide bakoitzari. Ikastaroak plaza mugatuak izango dituenez, izena emandako orden zorrotzean beteko dira. Matrikularen kostua 10 eurotako izango da eta Udal Bulegoetan izena ematerakoan ordaindu behar dira. Izena emateko epea martxoaren 18an amaituko da.



**Errehabilitazioa**

**Masaje terapeutikoa**

**Kirol masajeak**

**Lunbalgiak eta ziatalgiak**

**Drenaje linfatikoa**

**Kinesiologia**

Naiara Gómez Larrea  
Kol.zkia.: 1466

**Orduetgia:**  
astelehentik  
ostiralera  
9:00 - 13:00  
15:00 - 20:00

Andraitz kalea, 2 ezk. ZEGAMA Tel.: 943 80 15 32

Kol. zkia.: 764



*Nerea Larrea Oyarbide*

**Aho kirurgia**

**Inplantologia**

**Periodontzia**

**Artikulazio eta ahoko minak**

Dulce María Loinaz, 3 Beasain 943 088 118



Lazkao

## Pettiren kontzertua Arerian

Martxoaren 13an, gaueko 10etan hasita, Petti abeslariaren saioa izango da Areria Kultur Guneko kontzertuen barruan.

Ordizia

## Rafa Rueda

Ordiziako Udaleko Euskara eta Kultura Sailek antolatutako euskal musikariaren kontzertuen barruan, Rafa Ruedaren txanda izango da. Martxoaren 18an, Herri Antzokian izango da, gaueko 10,15etan.

Goierrri

## Goierrriko kultur zirkuitua

### Martxoak 12, osteguna:

**21:00etan:** Xabier Amuriza eta Jon Maiaren 'Mende baten aldarriak'. Ordiziako D'elikatuz zentroan. Antolatzailea: Hizaro.

### Martxoak 18, asteazkena:

**22:00etan:** Lakrikun antzerki taldearen 'Greban gaude' antzezlan, Itsasondoko eskolan. Antolatzailea: Arbelaitz Elkarte.

### Martxoak 25, asteazkena:

**18:30ean:** Ainhoa Ansa eta Jagoba Astiazarenen 'Piano bat bertsoan', Lazkaoko Gerriko txokoan. Antolatzailea: Goierrriko Euskal Eskola.

Beasain

## Igartza sariaren oinarriak

Idazle berrientzat, XII. Igartza Literatura-sorkuntza beka antolatu dute aurten ere Beasaingo Udalak, Beasaingo CAF (Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles) enpresaren babesarekin eta Elkar argitaletxearen laguntzarekin, euskal kultura zabaldu eta idazle gazteen lanari laguntza emateko asmoz. Bekak, 6.000 euroko diru-laguntza izango du.

Deialdi honetara, narratibako lanak (eleberrri edo ipuin-bildumak) egiteko proiektuak aurkez litezke, jatorrizkoak eta euskaraz sortuak, beren zatiren bat edota osotasuna inon argitaratu gabea dutenak, sarituak izan ez direnak eta beste inondik moldatuak ez direnak. Lana entregatzean 35 urte bete gabe izatea eta aurretik lan argitaraturik izatekotan, bakarka bi liburu baino gehiago argitaratuak ez izatea. Bi baldintza horien muga, proiektuak jasotzeko unekoa (2009-06-30a) da.

Proiektuak, 2009ko ekainaren 30a arte bidal litezke helbide honetara: XII. Igartza Literatura-sorkuntzako Beka. Euskara Zerbitzua (Udaletxea). Loinazko San Martin plaza. 20.200 BEASAIN (Gipuzkoa)

Karmele Jaiok, Igor Estankonak eta Xabier Etxeberriak osatutako epaimahaiak, jasotako proiektu guztiak aztertu eta haien arteko bat izendatuko du irabazlea 2009ko irailaren 10a baino lehen. Aurkeztutako lanek behar adinako kalitaterik ez dutela iritziz gero, beka eman gabe utz dezakete epaimahaikoek.

Bekako diru-kopuruaren erdia, irabazle izendatu bezain laster jasoko du irabazleak, eta beste erdia, idazlan amaitua entregatu eta epaimahaikoek onespina emandakoan, lehen erdia jasotzen duenetik urtebetera hain zuzen ere.

Irabazleak, izendapena jaso eta urtebeteko epea izango du gehienez, idazlan amaitua Beasaingo Udalarri helarazteko. Luzera alde aurretik zehazten zaila bada ere, liburua osatzeko adina izan beharko du: 75 bat orrialde gutxienez. Bitarte horretan egileak hasierako proiektua aldatu nahi izango balu, epaimahaikoei jakinarazi beharko die aldatetaren berri eta haien onespina jaso beharko du.



**ZEGAMA**  
**OKINDEGIA**  
*Eskuz egindako ogi naturala*  
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak  
☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

**SALMENTA PUNTUAK:**  
**Beasain:** Oskarbi, Osña, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegi:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak, Centro 100. **Urretxus:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.

**Ikaskide**  
irakaskuntza eta pedagogia

Joan Iturralde, 5 - Beasain  
943 160 120 (arratsaldez)  
www.ikaskide.net

**ESKOLA LAGUNTZA:**  
Lehen Hezkuntza, DBH,  
Batxilergoa, moduluak

**INFORMATIKA:**  
Mekanografia, Word, Acces, Excel

**IKASKETA TEKNIKAK**

**UNIBERTSITATE MAILA:**  
Enpresaritza, Injeniaritza,  
Kimika eta Fisika

**INGELERA:**  
Maila guztiak, PET,  
First Certificate, mintza praktika

Eskaintza berria: **FRANTSESA**



### Astigarreta eta Garingo luistarrak 1929ko ekainean

Argazki hau orain dela 14 urte GOIERRITARRAREN 71. zenbakian kaleratu zen bizirik zeudenen izenekin. Oraingo honetan Ander Iurritaren lanari esker izen gehienekin argitaratu dugu.

**Goiko ilaran ezkerretik eskuinera:** Joxe Inazio Intxausti (Otegi), Joakin Telleria (Goikoetxeazpi), Eduardo Esnaola (Intxausti), Justo Aranburu (Garinarrese, Garin), Juan Lasa (Garinarrese, Garin), Anizeto Odriozola (Bazterretxe, Garin), Frantzisko Etxaniz (Albitxu), Joxe Asurabarrena (Erloeta, Garin), Migel Esnaola (Intxausti) eta Juan Bautista Aranburu (Bolaleku).

**2. ilaran:** Meltxor Garcia (Beasaingo aguazila), Margari Etxezarreta (Saletxeberri), Juana (Orueta), Joxe Mari Aranburu (Arregibarrena), Joxe Mari Lizarazu (Arregigoena), Aranburu (Beasaingoa), Felipe Mujika (Mandubiko benta, Itsaso), Santos Regil (Argoinzar, Garin), ezezaguna, Lino Oruezabal (Iturgoien), Joxe Legarreta (Etxeberri), ezezaguna, Luis Ulazia (Erloeta, Garin), ezezaguna, Narziso (Orueta), Esteban Lizarralde (Agerretxipizar), Sebastian Odriozola (Agerrebekoa), Joxe Frantzisko Etxezarreta (Saletxeberri) eta Pedro Mari Aiesta (Artsuaran).

**3. ilaran, eserita:** Martin Aranburu (Bolaleku), Joxe Mari Lizarralde (Agerretxipizar), Pedro Odriozola (Agerrebekoa), Frantzisko Izuzkiza (Agerre erdikoa), Antonio Asurabarrena (Leasain), Juan Telleria (Goikoetxeazpi), Inazio Agirregomezkorta (Etxeberri), Matias Aldasoro (Aizpuru) eta Manuel Garmendia (Agirrebarrena).

**Behoko ilaran, lurrean eserita:** Pedro Agirregomezkorta (Etxeberri), Julian Garin (Dorronsorotegi), Euxebio Garin (Dorronsorotegi), Joxe Migel Zufiria (Itsasoko organista), Pako Soraluze (Agerrebekoa egoten zen, Azkoitkoa), Zezilio Agirregomezkorta (Etxeberri), Tomas Telleria (Goikoetxeazpi), Euxebio Garmendia (Arregibarrena), Juan Otaegi (Iturgoien egoten zen, Beizamakoa), Rikardo Garcia (Agerre erdikoa), Joxe Antonio Gurrutxaga (Erloeta, Garin), Migel Mari Aldasoro (Aizpuru), Joxe Etxaniz (Albitxu), ezezaguna eta ezezaguna.

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobekak"



K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44

IÑAKI ARIN  
aseguruak



943 888 702

Oriako pasealekua, 20

BEASAIN

**BARANDIARAN**  
**Zeramikak**

ERREF. MAK    DISEINUAK    PROIEKTUAK    BAINUAK    HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN  
 TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657  
 e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com

# eskerrik asko

[www.aralar.net](http://www.aralar.net)

ezkerreko **alternatiba** abertzalea  aralar

# Azken Etxebizitzak eta garajeak



## Zaldibian



178.500 eurotik aurrera

943 21 04 54  
atxegi@atxegi.com

PROMOCIONES INMOBILIARIAS  
**Atxegi**